

**GOBERNU JUNTAK 2023ko apirilaren 24an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

ETORRITAKOAK

ANDER GARAY

ARRASATE

AINHOA LETE

BERGARA

IRAITZ LAZKANO

ELGETA

GORKA ARTOLA

BERGARA

IZARO ELORZA

OÑATI

CRISTINA MARQUINA

BERGARA

UNAI ELKORO

ARETXABALETA

ANIK ZUBIZARRETA

ARRASATE

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2023ko apirilaren 24an, 11:15etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Lehendakariak esaten du urgentziazko hiru puntu sartzea nahiko lukeela gai ordenean, beraz, lehenik eta behin urgentzia bozkatu behar da, 2058/1986 Errege Dekretuaren 86. artikuluan xedatutakoa betez.

Hauek dira puntuak:

- Innobide S.L. enpresari fidantza itzultzea.
- Mankomunitateko Lehendakari-ordeak dedikazioari uko egitea
- UEMAKo mozioa

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Urgentzia bozkatzeko dute, eta aho batez onartzen da puntu horiek gai ordenean sartzea.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Juntakideak ados agertzen dira aurreko bilerako aktarekin.

2.-Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

3.- Debagoieneko Mankomunitateko Iruzur plana onartzea, hala badagokio.

Iruzur Planaren helburua eta aplikazio eremua

Iruzuraren aurkako Plan honen helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako gaitan aplikatu eta bete beharreko printzipioak eta arauak ezartzea. Horretarako, iruzurreko edozein jardueratan disuasio-efektua eragingo duen kultura sustatuko da, iruzurraren prebentzioa eta detekzioa ahalbidetuz eta iruzurrarekin lotutako delituen eta iruzurrarekin lotutako delituen ikerketa erraztuko duten prozedurak garatuz, kasu horiei modu egokian eta une egokian heltzen zaiela bermatzeko.

Plan hau iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratzen da: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena. Horretarako, prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak hartzea aurreikusten da, egoera zehatzetara egokituak, iruzurraren arriskua murrizteko, eta iruzur efektiboarekin edo potentzialarekin lotutako prozesuen, prozeduren eta kontrolen jarraipen-mekanismoak definitzeko.

Aplikazio eremu objektiboa

Planean hainbat motako iruzurraren aurkako neurriak zehaztu eta aplikatuko dira Debagoieneko Mankomunitateak eta haren menpeko entitateek sustatu, izapidetu eta edozein modutan kudeatu edo parte hartutako Europar Bat asuneko Funtsekin lotutako eragiketa guztietan, HFP/1030/2021 Aginduaren markoaren baitan.

Aplikazio eremu subjektiboa



Plan hau nahitaez bete behar dute Mankomunitatean zein haren menpeko entitateetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenek, direla karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak edo konfiantzazko karguak. Era berean, erakundeko gobernu-organoetako kideei ere aplikatuko zaie (aurrerantzean, **Hartzaileei**).

Hartzaile guztiek Plan honetan jasotakoa zorrotz bete beharko dute. Ildo horretan, iruzur-, eroskeria- edo ustelkeria-kasu bat izan daitekeen edozein jardueraren berri eman beharko dute, modu proaktiboan.

Era berean, eta erakundeak bere eginkizunak garatu eta gauzatzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen esku-hartzea eta parte-hartzea behar dela oinarri hartuta, erakunde, organismo eta instituzio publiko edo pribatu, hornitzaile, kontratista, azpikontratatistak edo laguntzaileek (aurrerantzean, **Hirugarrenak**), plan honetan jasotakoa bete beharko dute, erakundearekin edozein motatako harremanak hasi eta mantendu ahal izateko.

Aplikazio eremu tenporala

Iraupenari dagokionean, Plan hau indarrean egongo da testuinguruaren atalean aipaturiko funtsen kudeaketek irauten dirauten bitartean. Hala ere, kanal etikoaren eta kode etikoaren iraupena mugagabea izango da.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, Debagoieneko Mankomunitateko Iruzur Plana AHO BATEZ ONARTZEN DA.

4.-"Enpresare" enpresen arteko harremanak sustatzeko elkartzeko kide kolaboratzailea izateko proposamena onartzea, hala badagokio.

Irizpen Txostena

"Enpresare" enpresen arteko harremanak sustatzeko elkartzeko kide kolaboratzailea izateko proposamena.

Bergara eta inguruko industria ehuna sustatzea eta babestea da "Enpresare" elkartzeko



helburua., eta horretarako, elkartean dauden enpresak elkar ezagutzea sustatuko duten ekitaldiak antolatzen ditu, elkarren arteko konfiantza sustatuz, banakako eta taldeko proiektuak abian jarritz.

Helburu horiek lortzeko, besteak beste, ondoko jarduerak antolatzen ditu

- Bilera tematikoak
- Enprekin bakarkako zein taldekako proiektuak
- Enpresetan enplegua, talentua, zientzia, teknologia, digitalizazioa eta berrikuntza bultzatu
- Ekimenak sustatzeko taldeak abian jarri
- Ekimen komertzial partekatuak abiatu

“Enpresarek” elkarteko kide kolaboratzailea izateko proposamena luzatu dio Debagoieneko

Mankomunitateari. “Enpresaren” estatutuen 30. Artikuluan arautzen da “Bazkide Laguntzaileen” izaera eta horrela dio:

30. Artikulua.- Bazkide laguntzaileak izango dira Zuzendaritza Batzordeak halakotzat izendatzen dituenak, elkarteari bere helburuak lortzeko aldizka egindako ekarpenak edogarrantzi nabarmeneko ekarpen isolatuak kontuan hartuta. Ondasun materialen edo ezmaterialen diruzko edo gauzazko ekarpenak hartu ahal izango dira kontuan, hala nola lanak, azterlanak, sustapenak eta jabetza intelektualak. Bazkide laguntzaileari “Enpresare” Elkartearen helburuekin bat egiteko eskatuko zaio, baina eskubide osoko bazkideei eska dakizkiekeen beste betebeharrak batzuetatik salbu gelditu ahal izango da, bereziki, aldizkako kuotak ordaintzetik.

Aurrekoa kontuan izanik eta laguntzaile erako bazkideak konpromiso finantzariorik suposatzen ez duenez, Batzordeak ondoko proposamena luzatzen dio Gobernu Juntari:

“Enpresare” elkarteko bazkide laguntzailea izateko akordioa hartzeko.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Iزارo Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENEKO 4. PUNTUA.

5. Enpresa ekimeneko zentruko eskaerak onartzea.

Hauek dira proposamenak:

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



- Nutrición clínica y deportiva integrativa: Aretxabaletako EEZ-DIEko zerbitzu erako 4-AR modulua uztea.
- Dolulaguna (Aretxabaletako 4-AR modulua baja): 610,53 Euroko fidantza itzultzea.
- Sukha Fisioterapia-Osteopatia Aretxabaletako 2-AR modulua: 2023ko irailaren 30arte luzapen berezia ematea.
- Komodus, S.L. (Arrasateko 1-IM modulua): 2. urterako luzapena ematea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENeko 5. PUNTUA.

6. Bulego papera kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Zentralera atxikitzea onartzea, hala badagokio.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, AHO BATEZ ONARTZEN DA BULEGO PAPERa KONTRATATZEKO GIPIZKOAKO FORU ZENTRALERA ATXIKITZEA.

7. Berogailuen mantenua kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Zentralera atxikitzea onartzea, hala badagokio.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Ondorioz, AHO BATEZ ONARTZEN DA BEROGAILUEN MANTENUA KONTRATATZEKO GIPUZKOAKO FORU ZENTRALERA ATXIKITZEA.

8. Ondorengo kontratu hauen urte baterako luzapena onartzea, hala badagokio.

- Su itzalgailuak hornitzeko eta mantentzeko kontratua, Babesa Suzai, S.A.
- Intrusioaren aurkako sistemen prebentzioko eta zuzenketako mantentze lanak, AREA 7, S.L. enpresari.
- Erantzukizun zibileko aseguruia, MAPFRE, S.A.
- Bizitza eta istripu aseguruia, AXA Seguros Generales, S.A.
- Higiene produktuen hornidura, Vadrisa, S.A.
- Erabilitako olioaren gaikako bilketarako edukiontzien hornidura, CERVIC, S.A
- Plastikozko hondakinak kudeatzeko kontratua, Bañu-Etxe Reacivlyng , S.L.U
- Txatarra salmentako kontratua, Naparra Bergara, S.L.U
- Papera eta kartoia saltzeko kontratua, Arregui Etxabe San Jose, S.A.
- Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegean atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua, EUROCONTROL, S.A.
- Sukaldeko erabilitako olioaren gaikako bilketarako edukiontzien hornidura, CERVIC, S.A.

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENEKO 8. PUNTUA.

9. 2023ko Martxoak 10ean egindako ez-ohiko Gobernu Junta baliogabetzeko aurkeztutako errekurtsioa dela eta, erantzun proposamena onartzea, hala badagokio.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (7): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Cristina Markina.

Kontra (2): Ander Garay, Unai Elkoro.

Abstentzioa: 0



Ondorioz, 2023ko martxoak 10ean egindako ez-ohiko Gobernu Junta balio gabetzeko Birjartze-errekurtsoa ez onartzea erabakitzen da.

10. Innobide S.L. enpresari bermea itzultzea onartzea, hala badagokio.

Inobide S.L. enpresari Hazilan programa garatzeko jarritako bermea itzultzea.

2019an "Hazilan" proiektuaren "Aktibatu" fasean formazioa emateko kontratazio prozesua garatu zen eta horren esleipena INNOBIDE S.L. enpresari egin zitzaion. Administrazio klausula berezien pleguaren 17. klausulak, 5. atalean jasotakoaren arabera enpresak behin betiko bermea jarri behar zuen. Eskakizun hori betetz, Innobide S.L. enpresak 1.237,- eurotako berme bat jarri zuen, Debagoieneko Mankomunitateko kontuan diru kopuru hori ingresatuz.

Dagoeneko "Hazilan" programa bukatu denez eta Debagoieneko Mankomunitateak, Innobide S.L. enpresarekin zuen kontratua, adostutakoaren arabera ondo bete dela ziurtatu eta gero, Batzordeak ondokoa proposatzen dio Gobernu Juntari; 2019ko maiatzaren 28an INNOBIDE S.L. enpresak jarritako behin betiko 1.237,- eurotako bermea, enpresari itzultzea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elgoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENEKO 10. PUNTUA.

11. Mankomunitateko Lehendakari-ordeak dedikazioari uko egitea onartzea.

Garazi Larreak, Debagoieneko Mankomunitateko Lehendakari-ordeak dedikazioari uko egiteko eskaera egin du.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elgoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENEKO 11. PUNTUA.

12. UEMArekin MOZIOA: Historia medikoa euskaraz idazteko eta medikuek euskaraz lan egiteko eskubidearen aldeko adierazpena.



Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (9): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA GAI ORDENEKO 12. PUNTUA.

13. Galdera eskerak.

Ez dago.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:00etan bukatutzat ematen da bilkura.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 24an.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

